ZER
ALDIZKARIA
437. zenbakia
2017 LORAILLA

Bizkaitarrei Bizkaieraz

www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

EUSKERAZALEAK 1967 2017 50 URTE

EUSKERAZALEAK
Euskerea
Erabiltearen Aldeko
Alkartea

Euskalerrian euskeraz
EUSKERAZALEAK

2017-2018 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 50. IKASTAROA
IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak
Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 9an

50. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak
Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 9 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak
ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA
Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO
Urrutizkina : 944 235 322
info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ISSN: 1132 - 1350
Lege gordailua: BI-1452-85

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN BERROGEITA AMARREKO URTE BETETZEAK

Atutxa´tar Paul
Zornotzan 2.017ko urtean Jorraillaren 25´ean

Aita Santi Onaindia

AURKEZPENA.

Aurkezpen labur bat egingo dot, leen, noztik nora asi nintzan Gaztelerazko ta Euskerazko idaz lan onetan Euskalerriari buruz, Euskerazaintzan eta gero Euskerazaleen baltzuan bazkide lez. Eta bigarren, Euskeratzaintza ta Euskerazaleen idazkari lez.

1.977ko Urrillareninguruan, Zornotzako batzokian, margotalde bat irasi gurean, Aita Santi Onaindiarengana jo bear izan neban, eta beragaz berba egin eta gero, berak itandu eustan, "zergaitik esaten dokazan guzti orreik ez dozak idazten eta nik zuzendu ta gero Euskadi Aldizkarian argiratu ?. Eta bereala asi giñan, Izadi onen edestia ikasiaz batera idazten.

1.996ko urtean Otsaillaren 11´n il zan Aita Santi agurgarria, eta Euskerazaintzako batzarretan egon giñala San Sebastian´tar Joxe Mari Donostiarra (Latxaga) izan zan nigaz leen alengidu zana nik Euskeraz idazten asteko.

Euskarazaintzaren Debako batzarretik urten gendunean, Olazar´tar Martin izan zan bigarren alegindu zana, ni Euskerazko idaz lanakin arduratu nendin.

Eta Euskeraz enekiala esan ondoren, berak: "Ori konponduko dogu". Zuk idatzi bai, eta nik zuzenduta ZER Euskerazaleen aldizkarian argitaratuko dogu.

1.996ko urtean ZER aldizkariaren Jorraillan agertu zan nire lenengo Euskerazko idaz lan "AGUR BEROA" Aita Santi Onaindia agurtzeko. Ortik aurrera eten barik, aurrera egin dot Euskeraz idazten.

1.999ko urtean asi jatazan Zubiri´tar Iñaki, Zubikarai´tar Augustin, Arrinda´tar Anes, Oñatibia´tar Manu, Latiegi´tar Bizente eta Olazar´tar Martin´ek zirikatzen, Euskerazaleen Alkartera ia joango ote nintzan, eta ontzat artu neban euren eskeintza.

1.999ko urtean joan nintzan Euskerazaleen batzarretara, eta 2.000 urteko Loraillatik asi, Euskerazale Alkartean idazkariaren lanakaz gaur arte. Gaur, Klaudio Barroeta Lendakaria, maisu eta adizkide diran Egurrola´tar Iñaki eta Fernandez´tar Karmelegaz batera.

Nire aldetik, eskertzeko ordean agertu nagie beti, erakunde biak euki dabezan bazkidei, batez be baiña, berton aipatzen dodazanak, merezimenduko gizon andiak izan eta direlako

EUSKERAZALEEN ALKARTEA IRASTEKO, SORRERAZKO GIROA.

Nik batu dodazan zeaztanunetatik, eta orduko euskeraren alde Euskalerri osoan sortzen eta ibilten ipini egiten ziran erakundeagaitik arduratuta:

1.967ko urtean, Euskerazaleen Alkarte txiki bat sortu zan gure eskal izkuntzari laguntzeko.

1.967ko urtea eta ingurukoak, Franko zapaltzaillearen denborak ziran, eta bizitzeko bear dan guztia baldintzatuta euki arren Euskalerriaren aurka, lortu eben emendik eta andik jokatuta, 1.967ko urtean Loraillaren 14an legez gauzatzea, euskeraz irakatsi eta mintzatzeko erakunde au.

1.967ko amarkada onetan eta menperatzailleak eskua apur bat zabaldu ebanean, ugaritu ziran euskerazko dantza taldeak Bizkai guztian, eta giro orretan jaio zan gure Euskerazaleak Alkarte au.

EUSKERAZALEAREN SORRERA TA SORTZAILLEAK.

Bizkaiko Jaurkin Zibilleko Zijiluagaz[1] dago sarrera emonda Euskerearen Aldeko Alkartea sortzeko agiria. Bertan esanda, zelan eratu zan Euskerazaleen Zuzendaritza edo la direcciòn de la Asociación para el fomento del Euskera.

EUSKERAZALEAK EUSKEREA ERABILTEAREN ALDEKO ALKARTEAREN erakundea sortzeko ipini ziran baldintzak, oneik izan ziran:

Euskerearen aldeko Alkartea izan zedin.

Ezartzen ziran erakundeen baldintzak onartu, Zuzendaritzaren batzordea zelan osotu eta illeroko 100 pezetako ordain-saria ipiñi, eta erakundearen illeroko agiria Zibillezko Jaurkintzara eroan, espainol zaindariak baimena emon egian.

Eta Euskerazale Alkartearen Zuzendaritza, emen aipatzen diran bazkideekaz osotu zan:

- Oleaga ta Etxebarria´tar Jesus, Lendakaria.
- Montiano ta Gallego´tar Jose Antonio, Lendakari-Ordea.
- Atxa ta Agirre´tar Jesús, Idazkaria.
- Bengoa ta Zubizarreta´tar Jose Luis, Diruzaiña.

Eta aipatu dodazan onekaz, beste oneik be zinatzen eben agiria:

- Olaizola ta Azkue´tar Jose Maria.
- Gonzalez eta Etxegarai´tar Karlos.
- Berrojalbiz eta Berrojalbiz´tar Julia.
- Uriarte ta Agirremalloa´tar Kastor.
- Ezpeleta ta Etxebarria´tar Jose.
- Zelaia ta Ibarra´tar Adrian.
- Astiz eta Iglesias´tar Migel Anjel.
- Erkiaga ta Alastra´tar Eusebio.
- Zubizarreta ta Ipiña´tar Fernando.
- Martin eta Retana´tar Jose Maria.
- Zugagaza ta Fernandez´tar Leopoldo.
- eta Urkijo ta Olano´tar Juan Ramon.

Zuzendaritzazko batzorde onek, arik eta berreun bazkide izatera eltzen zanerako euki eban bere denborea, igarri barik bete zana.

1.968ko urtean Urtarrillaren 15ean Anaitasuna Aldizkarian dauka siñatuta Gereño´tar Xabierrek, lenengo batzar Nagusiaren kondaira.

Atxa ta Agirre´tar Jesús

(1) Zigilua edo Zijilua = sello del gobierno civil.

Eta 1.968ko urtean Urtarrillaren 23an, Karlton Ostaletxearen gela nagusian egin zan Euskerazaleak Alkartearen benetako egite edo sorraldia, Alkarteak euki eban 290 andra-gizon bazkideakaz.

1.970eko urtean Otsaillaren 2an, Santiago Apostol Ikastetxean egi eben bigarren Batzar Nagusia, 359 bazkide bertan zirela.

Gero, 1.972eko urtean 2.700 bazkideetara eldu zana.

Alkartearen lenengo egoitza, Epalza Alargunaren kalean 12ko zenbakian euki eben, urte bete barru, gaur oraindiño Euskerazaleen egoitza dan Kolon de Larreategiko 14 zenbakian bigarren solairura aldatuta.

Eta Euskerazaleak Alkarteak euki ebazan laguntzaille artean:

-Ziarsolo´tar Manu (Abeletxe), Arrieta´tar Nikolas, Landajuela´tar Antón, Alkorta´tar Eusebio, Izaola´tar Oktabio, Kobo´tar Jenaro, Ansola´tar Patxi, Etxenagusia´tar Karmelo, Etxebarria´tar Bonifacio, Goti´tar Jose Luis, Makua´tar Jose Maria, Unzueta´tar Mitxel, eta abar.

Asieratik argitaratu ziran aldizkari antzeko batzuk, taldearen barruko jardurearen barriak emoteko, orretara bazkide guztiak ikusten ebalako, zelako ekintzak euki ebazan taldeak, adibidez:

-Umeentzat eta izkuntza irakasten zan lekuetarako andereñoak aukeratu.

-Andereñoarentzat, ikastaro bereziak atondu. Bide batez, eurentzat bizi lekuak aukeratu eta abar.

-Ikasketak ele bitan egin, erreztasun geiagoagaz eskolak sortzeko.

-Euskerea irakasten aleginduko diranak eta oarkariak prestuten jarraitu.

-Euskeraz egiñiko liburuekaz, liburutegia osotu.

-Antzerki taldeak sortzeko, zaletasuna bultzatu, ta elburu orren atzean dagozan Irratiak euskerea zabaltzeko, begitu.

-Eta elburu orreik lortzeko, sariak eskeiñi, aurreratu edo sortarazi, eta abar.

Jose Luis Bengoa Zubizarreta



Euskerazaleak Alkarteak, edestiaren zear euki dabezan Arduradunak.

1.914ko urtean Zeanurin jaioa eta 1.998ko urten Bilbon il zan Oleaga ta Etxeberria´tar Jesus. Bere lendakaritza 1.967-1.977ko urte bitartean bete ebana.

Euskerazaleak Alkartearen sortzaillea eta lenengo burua izan zan, bai bere Lege-Gizon lanean, euren bazkuneko zuzendaritzan ainbeste urtean egondakoa, Euskalerri Adiskideen Elkartean Bizkaiko Batzordearen idazkari, Zulaibarren Lanbide Eskolako sortzaille, eragillea, ta abar.

Jesús, Euskerari buruz, ainbat lan egindako gizona zan.

1.913ko urtean Bilbaon jaio eta 2.003ko urtean Bilbaon il zan Zubiri´tar Iñaki.

1.977ko urtetik 2.003ko urteraiño izan zan Euskerazaleak Akartearen lendakaria.

Euskerea ikasi ebanetik, idazle amorratua egin zana, 13 liburu idatzita eta idaz lanak ugari

Agur aldizkarian agertu ebanetik, eta gero ZER gure aldizkarian.

Latiegi´tar Bizentek esaten eban beronen gaitik, "Euskerea ikasi ta liburuak idatzi, nundik ataraten dabe gizon auek ainbeste indar ori egiteko".

Gazte izan zala ta injineritza ikasten egoala 1.936ko gudak arrapau eutson, eta Otxandioko guda-taldean borrokatu zan.

Ostean jazargoko taldearen buru izanda, Arjentinara atzerriratu bear izan eban aldi batez, eta asieran ez ebalako injiñeruzko ikasketak amaitu, lortu eban askenez, paper agiri ori eskuratzea.

Arjentinatik etorri eta lan bidez gaiñera, ondo ikasi eban euskerea, arritzeko izanik, ainbeste Euskerazko idazlanak egitea.

1.927ko urtean Gamiz´en jaio eta 2.000ko urtean Mungian il zan gure Olazar ta Uribe´tar Martin.

2.000ko urtean artu eban Euskerazaleak Alkartearen lendakaritza Zubiri´tar Iñakiren eskutik, ainbat lan eginda Euskarazaleen erakundeagaitik eta ZER aldizkariaren gaitik.

1.977ko urtean ZER jaio zanetik, Martin bera izan zan aldizkariaren zuzendari ta arimea bera il zan arte, il osteko beren utsunea Barroeta´tar Klaudio, Atutxa´tar Paul, Egurrola´tar Iñaki eta Fernandez´tar Karmelek beteta.

Ainbat idazleen laguntza aurkitu eban Martiñek beragandik asita, Arenaza´tar Josu, Zubikarai´tar Augustin, Arregi´tar Josu, Landajuela´tar Antón, Ziarsolo´tar Manu, Eguskitzabal´tar Julene, Arrinda´tar Anes, Uriguen´tar Zenon, Arrien´tar Agustin, Madariaga´tar Jose Iñaki, Garmendia´tar Txomin, Etxebarria´tar Agustin, Ormaza´tar Josu, Sangroniz, Letona, Aita Martzel, Aita Onaindia´tar Santi, Gallastegi´tar Klaudio, Aita Akesolo´tar Lino, Estonba´tar Manuel, Atxutegi´tar Biktor, Solozabal´tar Paulin, Jon Erramun, Jon Egileor, Atutxa´tar Paul, eta beste ainbat lagun ZER aldizkaria lan ederrakaz bete eta Bizkaitarraren artean berrikuntza orreik zabaltzeko.

Martin Olazar Uribe

Olazar´tar Martin, ainbat lan-eder eginekoa da Euskerazaleak Alkartean eta Euskerazaintza aldizkari eta erakundeetan.

1.922ko urtean Igorren jaiotako Barroeta eta Amorrortu´tar Klaudio Klaretarra daukagu, lendik bazkide izanda, 2.009ko urtean Olazar´tar Martin il zanean artu ebana Euskerazeleak Alkartearen zuzendaritza, eta or jarraitzen dau tinko eta eten barik, Euskerazaleak eta Euskerazaintzazko erakundeak, euren aldizkariakaz aurrera eroaten.

Merezimendu andiagaz, aipatzekoak diranak be bai.

Montiano´tar Jose Antonio, Euskeldun barria eta Jakitun andia, Urkijo´tar Juan Ramonegaz, Gipuzkoa eta Bizkaierazko berbak oñarritzat artuz, 10.000 berba inguru euki eben egin eben iztegirako, eta lan andi ori egiteko, Etxenagusia´tar Karmelo ta Peña´tar Jabierren aolkua eta laguntza euki eban.

1.914ko urtean Tolosan jaio eta 1.980ko urtean Donostin il zan Peña´tar Xabier.

Euskerea irakasten eta zabaltzen bere bizitza osoa emon eban.

Bere ikastetxea eta euskerea ikasteko eta "Euskal Irakasbide Laburra" irakaspidea euki , eta ainbat ikaslek erabili eben.

Bere eskoletatik, ikasle asko igaro ziran, orrez gaiñean Euskerazaleak Elkartean be irakasten ibilita.

Beste bide bat be urratu eban, Irrati bidez euskerea irakasten asi zanean.

Mendizaletasuna eta bazterrak erakusten gogoko edo atsegiñ euki eban, orretako irakasketakaz gazte asko bideratuta.

Aitatzea bearrezkoa da, ikastolak sortzen be, bera daukagulako bultzailletatik aundienetariko bat.

1.917ko urtean Barakaldon jaio eta 2.015eko urtean Bilbon ildako Zelaia ta Ibarra´tar Adrian daukagu.

Bere ume bizitza Sestaon emon ostean, irakasle izateko ikasketak egin ebazanak, gero zuzenbideko ikasketetan asita, gai orretan maisu egin zan, Deustuko Ikas

Adrian Zelaia Ibarra

Mailla Aundiko ikastetxean irakasle lez luzeroan ibilita, Euskalerriko Foru-Legeen sortzaille eginda, berak jakin ebalako ulertzen zeiñek izan ziran Euskal Legeak, eta zeintzuk espainol edo Gaztelarrenak, atzerritarrezko erri guztiak jakin egien, Euskalerria berezko erri andi bat izanez gain, eurak baiño milla urte askoren ariñaukoa dala.

Jendekuntz, Zuzenbide eta izkuntzagaz euken zerikusiko alkarteetan sartuta egoan, baita Euskerazaleak Alkartearen sortzaillea be izan zan, eta gogotsu ibili zan bertan be.

Badaukaguz beste batzuk be aipatu bear direnak.

Etxanagusia´tar Karmelo, Makua ta Zarandona´tar Jose Maria, Berrojalbiz ta Berrojalbiz´tar Julita, Urkijo ta Olano´tar Juan Ramon, Rotaetxe´tar Tere, Astiz´tar Migel Anjel, Goñi´tar Karmele, Unzueta´tar Mitxel, Uriarte eta Euba´tar Ana, Goti´tar Jose Luis, Ormaetxea´tar Emilio, Bilbo´tar Jon Erramun, Alonso´tar Margarita, Agirre´tar Bitori, Egileor´tar Jon, Retolaza´tar Jose Antonio, Malaxetxebarria´tar Jon, eta abar.

Irakasleak.

Irakasle asko aldatu dira gure Euskerazaleak Alkartetik, eta parkatu egiztazue, lar luze egingo jatelako eurak aipatzeagaz bakarrik, naita aurrerantzean zeozer egiterakoan erakundeari buruz, danak agertuko dira bere lekuetan.

Garrantzizko Lan asko eginda Euskerazaleak Alkartean, ikasketarako Peñak egin eban "Euskal Irakasbide Laburragaz.

Alkarrizketako "Euskeraz berba egiteko egin zan, Eskuetako Liburutxoagaz.

Ikas-Iztegiagaz.

1.969ko urtean Goikoetxea´tar Iñakik egin eban "Nora Zoaz" liburuagaz. Ipuiñak idazteko, Bizkaiko Aurrezki Kutxa diru bidez, egin ziran leiazko sariketak, eta 1.984ko urtetik asita oraindiño egiten diran Kontu-Leiaketak eta aste beteko itzaldiak Foru Aldundi eta Bilboko Udalaren diru bidez.

1.970ko urtean umeentzako Goikoetxea´tar Iñakik egin eban "Giza Soiña" liburu bidez, eta beste ainbat liburu.

Eta Kili-Kiligaz batera egin diran lan andiak.

Interneten Argitaratzen ditugun ZER aldizkaria, liburu, etabar.

Ardura aundiko aldizkaria izan bear dau gure "ZER" illeroko aldizkari au, ia 1.050.000 biztanle daukaguzelako, "Bizkaitarrei Bizkaeraz" Euskeraz egindako aldizkari au.

Eta poztuko gara, gogo onegaz jarraituten badau.

www.euskerazaleak.biz



Barroeta tar Klaudio

Menendez´tar Pidal, Gaztelerazko Erregearen Ikastetxeko urte askotan zuzendaria izan zanaren berba batzuk aipatuko dautsuedaz:

“Es increíble, el gran esfuerzo que hacen los vascos desde siempre para recuperar el vascuence, y no sė para quė”.

Berba orreik esangura dabe, *“Batzuen edo Gaztelarren ustez naita gizon andia izan arren, ez ebela euki iñongo zentzurik, edo eurak ezaten daben antzera: “ No tenia ni zorra idea de que hablaba”, ez ebalako jakin, zergaitik gu Euskaldunok maitatzen dogun ainbeste gure Euskera eder au.*

Europako Mendebal onetan eta Atlant-Itsasotik Alemania erdiraiño, ta Eskoziatik Kadizeraiño, Euskeraz Nortasundu giñelako ainbeste milla urteko bizi ekintzan.

Euskerea artu gendun AMA lez, Euskerazko mintzan eta oitura bidez baitu giñelako.

Ortik aurrera daukaguz gure Euskerazko Gurasoak, ainbat milla urte geroago gu agertuta gure arbasoen Aitor lez.

Espainol edo Gaztelatar orreik ez daukiena, euren izkuntza Euskerea eta Latiñez ondo astindu ta beartutako itzetik agertzen dalako, eta Izadi onetan menpekotasunezko borroka bidetik ez dira agertzen ezeren gurasorik.

Ori zan Menendez´tar Pidal´ek, ez ebena jakin, norkeriaren menperatsunezko bidean egin dabezan naste edo lokatzartetik ezin leikelako gauza garbirik atara.

Orregaitik ez dakie ezer, zentzunezko gauzatan.

Eta zentzun ori da Europak berrezkuratu bear dauana, bakez eta aztura onenean iraun dogun Europeotar guztiak, sendi bakoitza bere erritar-nortasunakaz, danak ondo ulertu gaitezan.



www.euskerazaleak.biz
1.000.000 BISITARI

EUSKERAZALEAK Euskerazaleak Euskerea Erabiltearen Aldeko Alkartea

Aita Zenon Uriguen Pasiotarrak, Batu eta egokitua

EUSKALTZAINDIA ETA EUSKERA BATUA.

2017, urte onetan betetzen dira 50 urte sortu zala Euskerazaleak bazkidea eta, danok bat eginda, ospatuko doguz bere sorrera eta urte buru onetan egindako idaz-lanak, ekiñaldiak eta Euskeraren alde jokatutako ekimen guztiak. Gure historia nekegarria izan da baña oso aberasgarria, batez be, Bizkaiko euskalkiaren alde.

Ona emen aspaldion euskeraren alde lanean diarduen erakunde bi: Bata Euskaltzaindia Euskal erri osorako eta bestea Euskerazaleak Bizkairako. Euskaltzaindiaren ama Kardaberaz bazkuna da. Bazkun au Gaistezko Seminarioan sortu zan Manuel Lekuona ta Josemiel Barandiaran´en babespean eta lan aundia egin eben, baña 1936 ean guda zitalak irakasleak erbestera eroan ebezan eta ikasleak gudara. Baña geroago 1965 urte inguruan kardaberastarrak barriro alkartu ziran Tolosan eta lan andia egin eben, batez be, argitalpen arloan. Batzarrean iñoiz baño bazkide geiago batu giñan, au da 100 bazkidetik gora.

1986 urtean gure Lekuona, euskaltzain burua, bere ardura onetatik kendu egin eben. Zergaitik? Eritxi ezbardiñak alkartzeko lan aundia egin ondoren, azkenean euskera batua eta atxea onartu ziralako. Aurretiaz zin eginda egozan, oiuka eta irañez, bazkiderik geienak ez egozala, erabagi zan Lekuona kentzea eta euskera batua onartzea. Batzar zaratatsua ta aserre bizikoa izan ei zan. Lekuonaren ordez. Billasante frantzizkotarra ipiñi eben. Amar urte geroago Euskaltzaindiak batzarra egin eban Bergarako semi-

narioan amar urte onetan euskera batuak urte aretan lortu ebana aztertzeko.

EUSKERAZAINTZA

Euskerazaintzakoak be an egon giñan eta konponketa batera bideak eskaiñi genduzan, baña dana izan zan alperrik, ez egoan atzera egiterik. Gure alegiak ikusirik Latiegi tar Bixente, euskerazaintzakoa aurreratu zan eta modu onean aurkeztu eban arazoa. **"Zuek euskera batuaren Euskaltzaindia zarie, baño gu lenengo euskatzaindiaren bidetik goaz, erri euskeraren eta euskalkien alde eta atxearen aurka, eta orregaitik euskaltzaindian zintzo jarraiturik akademia barria sortuko dogu"**

Eta Latiegi bera izan da lanik geien egin ebana, Euskerazaintza, euskeraren erri akademia sortzeko. Urteen joanean Kardaberaz bazkunak beeraka aundia izanik, euskerazaintza indartsu ari zan lanean eta ZER ALDIZKARIA argitaratzen dau. Euskerazaleak Bizkaiko erakundea da eta Bilbon, Colon de Larreategin-14, 2en oiñean da bere egoitza

50 urte dira **Euskerazaleak** sortu zala. Jesus Oleaga, Juan Ramon Urkijo, Jose Antonio Montiano, Adrian Zelaia eta beste batzuk sortzaille izanik. Erakunde onen elburuak onexek dira: Erri euskera eta euskalkiak indartu, batez be bizkaiera, eta Euskerarentzat kaltegarri dan atxea alboratu. Elburu oneek betetzeko batu gaitezan eta ekin gure erriaren alde eta orain **40 urte Zer aldizkaria** sortu zala, On Martin Olazar, Iñaki Zubiri Landajuela, eta beste batzuk

Euskerazaintza eta Euskerazaleak alkartea

Euskerazaleak erakunde bizi-bizia eta eraginkorra da euskeraren alde jokatzeko. Zuzendaritzaren egokitasuna. Lendakaria: Klaudio Barroeta, Lendakari ordea: Iñaki Egurrola. Idazkaria: Paul Atutxa. Diruzaiña: Karmele Fernández. Maikoak: Begoñe Arrieta, Koldobike Arrieta, Jokin Astobiza, Itziar Arrieta.

Ekintzak Illeroko batzarrak eta urtekoa egiten dabe urteburuan ainbeste ekintzak eratu eta atontzeko, danok biotz batez, alkarturik. Ona emen, laburkiro, ekintza guztien kopurua, euskeraren eta euskal erriaren alde.

Leen eta beiñ **ZER Aldizkaria**, eta bere illeroko orrialdeetan Ipuin-sariketa, Euskal astea, takoa Bizkaieraz, Ikasturtea, iztegia. Eta, batez be, Zer aldizkarian, idazlari trebe eta argiak. Interneten bidez euskerari zabalera eta indar bizia emoten dautsogu, Web 1.000 000 ikusle ditu, geienak Unibersitatetik datozen ainbeste ikusle. Egia esateko aupagarri izango da 50 urteurrenean ospakizun goragarria, batez be, Euskerazaleak Alkartean, leial ekin eta jarraitzeko.

Ezusteko itzela

Asier Legarreta (Ilargi Amandrea)
EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2016ko sari leiaketa. Irugarren saria

Euskalerriko kostaldeko erri txiki-txiki batean, bazan Peru deituriko gizon bat. Bere gurasoak erri aretakoak ziran eta ogei urte eukozanean, erriko neska ederrenetako batekin ezkondu eta baserri izugarri batera joan ziran bizitzera. Urte gutxi batzuk baino ez ziran pasatu leenengo alaba jaio zanerako eta jarraian etorri ziran urrengo iru seme-alabak be.

Peruren aita arrantzalea zanez gero, umetan oso gogoko eban aita etxean egoten zan denboraldietan berarekin orduak igarotzea itsasertzean eserita, arrantza kainabera eskuetan eukeela, arraina noz arrapatuko zain. Urteko gainerako sasoietan, ama alboan izaten eban arren, izugarri sumatzen eban aitaren falta, bere ikasgelako lagun geienek guraso biak etxean izaten ebezen eta. Denborarekin oituz joan zan arren, oso gustoko eukon arrantza egitea eta sarritan bakarrik joaten zan. Ondartzaren ezkerraldean oso lurmutur polita egoan eta arrantza egiteko leku ezin obea zan. Astean iru-lau bider arraina eramaten eutseen etxekoei jateko eta seme-alaba guztiak pozez txoratzen jartzen ziran.

Urte batzuk igaro ziranean, txalupa txiki bat eraiki eban eta eguraldi ona egoan arratsaldeetan kostaldetik gertu nabigatzen ibiltzen zan. Batzuetan bere emazte edo seme alabaren baten laguntza izaten eban arren, geienetan bakarrik joaten zan. Itsasoan arrantzan egiteak asko erlaxatzen eban eta aitarengandik urbilago balego moduan sentitzen zan.

Uztaileko arratsalde bero batean, beste zereginik ez eukala eta, Peruk erriko portu txikian txalupa artu eta arrantzatzera abiatu zen. Kostaldetik milla batzuk urrundu eta arrantza kainabera bota eban. Eguzkiak gogor jotzen eban arren, kostaldeko aize finarekin gustura sentitzen zan. Ain gustura, non iluntzeko bederatziak eldu eta an jarraitzen eban. Gaua urbiltzen sentitu eban, baina ilargia oindiño atera barik egoen. Egun aretan ez eban ia arrainik arrapatu baina bat-batean ura mugitzen asi zan eta arrainak laster arrantza kainabera artuko ebanaren itxaropena eukon. Itsasoa gero eta geiago mugitzen asi zan eta arrain andi zuri bat ikusi ebala iruditu jakon. Asko poztu zan, familiari ilusio andia egingo eutsolako eta egun pare baterako jatekoa izango ebelako. Alako batean, arrain andia, itsasotik kanpora urteten asi zan. Oso kolore argia eukon eta izugarri andia zan. Arraina zala pentsatu eban, uretatik ateratzen asi zan gauza zuri eta oso argitsua izanda izutu egin zan. Ura oiuka asi zan, negarrez egongo balitz moduan, eta Peruk arrauna eskuetan artu eban defendatzeko besterik ez eukalako. Itxura borobila eukon gauza ura oiuka, amorratuta eta alde guztietarantz mugitzen ebilen eta izugarrizko olatuak sortzen ebazan.

Peru izututa egoan, orrelako mugimenduekin bere txalupa txikia laster

Irauliko zan; baina ez ekien zer egin. Badaezpada, ixil-ixilik gelditu zan, arrauna eskuetan eukala, animalia arek ikusiko ez ebala pentsatuz. Baina alako batean, borobil erraldoi arek burua jiratu eta Peruri amorratuta begiratu eutson. Oso andia zan, kolore zuria eta oso begi andiak eukozan.

Uretako dragoi edo erensuge bat zala pentsatu eban eta bere garrasiek edonor utzi leikien beldurtuta. Zerbait gertatzen jakon baina Peruren errua al zan? Zer gertatzen zan?

Mutila ikustean uretako animalia a pixka bat urrundu egin zan, bera be beldurrak jota balego moduan. Biak alkarri begira geratu ziran eta gauza zuri arek aurreko guztiak baino oiu ozenago bat egin ostean, negarrez asi zan.

Ibai txikiak antzera erortzen jakozan malkoak begietatik. Peru zur eta lur egoan, ez ekian zer egin, zer zan a eta zer gertatzen jakon.

Astiro-astiro arrauna uretan sartu eta etxerantz joatea erabaki eban. Baina gaua oso iluna zan eta ez eban ezer ikusten. Daborduko denbora andana pasatu zan ilundu ebanetik eta, ilargia eta izarrak atara barik egozanez, ezin eban aurrerantz joan, ez ekian kostaldea non egoan. Itsu geratu izan balitz moduan sentitzen zan, dana baltz ikusten eban, animalia zuri a izan ezik. Beldurraren beldurrez, alde baterantz arraun egiten asi zan. Bat-batean animalia berba egiten entzun eban. Negarrez jarraitzen eban baina Peruri zeozer esan ebala iruditu jakon. Peruk burua jiratu eta piztiak olan esan eutson: -Lagundu, mesedez. Ez dakit zer egin dodan, ez dakit zer gertatu jatan, baina ez dot emen egon gura.

Animalia zintzoa iruditu jakonez, Peruk laguntza eskaintzea erabaki eban. Berarengana urbildu zan eta ea zer gertatzen jakon galdetu eutson. Besteak, au erantzun eutson:

"Eskerrik asko gizona, benetan, eskerrik asko. Uste neuen ni bezalako pertsonaia andi bat ikusita izutu eta alde egingo zenduela baina zure laguntza bear dot. Oso istorio luzea eta zaila da azaltzeko. Ni ez naz animalia urtarra, ez naz iñoz uretan bizi izan. Uger badakidan arren, au ez da nire etxea eta emendik ataraten lagundu bear nauzu. Ez al zara konturatu oraindik ilargia eta izarrak atara barik dagozela? Iluntasuna nagusi dala? Ba, nire errua da. Nigatik ezin dozu etxera bueltateko bidea topatu eta nigatik dago zerua orren ilun". Lasaitu adi, nik lagunduko aut.

Baina zelan esan dagikezu ori, zergatik da zure errua? Ni ilargi andrea naz. Badakit sinestezina dala baina olan da.

Daborduko ordu bi eroan bearko nebazan zeruan, nire etxean, baina ez da olan. Izan be, itsasoa da nire ispilua eta normalean urrunetik begiratzen dodan arren, gaur eguerdian larregi urbildu naz ispilura eta itsasora erori naz. Ilargia negar batean asi zan. Peru guztiz arrituta egoan. Ilargia be begien aurrean? Eta olan esan eutson:

Lasaitu zaitez, zer egin bear dodan esaten badaustazu, nik lagunduko deutsut. Eta galdera bat, orregatik ikusten zaitut ain argitsu eta zuri bakarrik?

Jakiña –erantzun eutson ilargi andereak- Ez jatan iñoz orrelakorik gertatu eta nire amonak idatzitako liburu batean irakurri neban, gure ispilua dan itsasora asko urbiltzea oso arriskutsua zala. Alan dabe, probatu egin gura neban eta begira zer gertatu jatan. Ez dot geiagotan orrelangorik egingo eta nire etxera bueltatu gura dot. Baina arazo bat dago. Nik gizakiekin bakarrik berba egin dagiket eta etxera bueltatzeko arrain guztiak alkartu eta gorantz indar eginaz ni zerura bultzatu bear nabee. Ados bazagoz, arrainak deituko dodaz eta zuk azaldu zer egin bear daben.

Bai, jakina, orixe egingo dot. Gainera orrela gaua pixka bat argitu eta neu be etxera bueltatu aal izango naz. Baina zuk badakizu gizakiok ere ezin dogula arrainekin berba egin, ezta? Bai, badakit. Baina ori egoera arruntetan bakarrik gertatzen da. Zuk ni ukitzen banauzu, arrainekin berba egiteko gaitasuna lortuko dozu. Peruk orduan ilargi anderea ukitu eban. Ilargiak arrainak deitu ebazan doinu berezi bat abestuz. Bat-batean arrain pilo batek txalupa inguratu eban.

Milioika arrain baino geiago egozan an, eta mota guztietakoak ganera, a izugarria zan. Baina benetan arrigarriena arrainek eldu aala Peru agurtzen ebela... Danek esaten eutsien kaixo edo zer moduz? Arrain guztiak bertan egozala ikustean, Peruk egin bearrekoa azaldu eutsen. Guztiek batera Ilargia zerurantz bultzatu bear eben Peruk irura arte zenbatutakoan. Orrela egin ebanean, guztiek kasu egin eutsen eta arrain danak batera ilargia bultzatzen asi ziran. Ilargiak asieran eukon aurpegi tristea alaitzen asi zan eta gutxika-gutxika itsasotik aldendu zan. Bidean joiala Peruri eskerrak eman eutsozan eta ez ebala iñoz aaztuko zin egin eutson.

Azkenean, Ilargia zerura eldu zan eta bere lekuan kokatu zan; arraiñak be sakabanatzen asi ziran eta, argitasuna nagusitu zanez, Peruk etxerako bidea artu eban. Arrituta egoan, gertatutakoa sinesgaitza zan. Etxera eldu eta familiakoak kezkatuta egozan arren, etxeko gizonak gertatutakoa kontatu ebanean sinetsi ezinik geratu ziran. Ilargiaren tokia zeruan dago eta gu zaintzea dauko elburu baina berak ez dau aaztuko Lurrean bizi izan eban esperientzia eta Peruk emondako laguntza. Olandaze, egun aretatik aurrera, edozein itsasotan Ilargiaren erreflexua ikus dagikegu bera noz edo noz gurekin egon zala gogoraraziz.

Kristobal Kolon, Nafarroako IVn Karlos erregearen Semea izan ote zan? (XXII)

Irugarren itsasaldiko edestitik datorrena.

1.498ko Uztaillaren 1ean portugez eta morroi-baltz asko egon ziran Santiago ugartera eldu ziran, eta Saarako ekaiztsu aizeak areagaz naastu egiten ebazalako artu bear ebezan gauzak, 5ean geiago ezinean urten bear izan eben ego-mendebalerantza, ia urre gorri asko eukiten ebazan ugarteak aurkitzen ebazan.

1.498an Uztaillaren 13an, aizea guztiz geratu jakien eta itsasoaren bare-aldi edo aize-il bateko egoeran sartuta, laba baten egon ba ziran lez aurkeztu ziran, itxasontziren bike-koipeak[1] urtu egiten zirala, gatza emondako okelak usteldu, garie laban egon bazan lez erre edo baltzituta agertu, ura ta ardoaren upelak lotzeko burdiñezko ustaiak askatu edo ta lasaitu egiten zirala ta ainbat zoritxarrakin egon ziran, zortzi egun luzeetan.

1.498an Uztaillaren 22an, euria botaten asi eta agertu zan eki-aldeko aizeagaz, ostera itsasketa onera aldatu ziran, eta itsaskuntza onen aldia Kolonek luzatu egin ebalako, ia ezer jateko barik eta uraren upel bat bakarrik euki ebela, Uztaillaren 31n eldu ziran ugarte barri batera, legorreratuta[2] gero Kolonek Trinidad´eko izena ipini eutsona.

1.498ko Uztaillaren 31n astearteko eguerdian Kolonek bideratzen eban itxasontziaren mariñel batek trapara[3] igonda, iru mendi andi ikusi ebazan, eta Kolonek bere sinismen sakonean, agertzen zan urrengo ugarteari Irukoitz Deunaren[4] izena ipiniko eutsola esan eban lez, izen ori ipini eutson.

Kolon bidai onetan, ezueri edo ezuri[5] gaitzaldiagaz gaixotu zan.

1.498an Dagonillaren 1ean Kolon bere itxasontziaren ontzigibel edo atze-aldean egonda, lur barri batzuk ikusi ebazan, eta berak ez ebalako jakin lur aiek lur-nagusiaren lurrak izan zirala, Isla Santa eta Isla de Gracia´ren izenak ipini eutsoezan.

(1) Bike-koipea = brea de kalafate, o brea con estopa, con la que se calafatean o cierran las juntas de los barcos para que no entre el agua. (2) Legorreratu = atracar. (3) Trapa = meseta colocada horizontalmente en el cuello de un palo o mastil del barco. (4) Irukoitz-Deuna = Santìsima Trinidad, o Trinidad. (5) Ezueri edo ezuri gaisoa = enfermedad de gota.



Kolonek ainbat denbora itsas-bazterretik ibilita "el Arenal" deitu eutson lur-mutur baten ingurutik urbil, aurkitu eben kai eder bateri, ta bertan geratu ziran itxasontziak konpondu ta bear ebezan urak itxasontzietara igotzeko.

Lan onetan egon zirala, txalupa bat agertu jakien ekialdetik, bertoko itxura on eta euren gezi-uztaiekaz armatuta 24gizon gazte, ararte ikusi ebazan indiar baño apurbat zuriagoak zirenak, buruetan margo ezberdiñeko zapi bat batuta eukezala, eta aitu ezinean, urrunetik euren uztaiakin geziak botaten asi jakiezan, euren erantzun labur bategaz laster amaitu zana, Kolonek aurrera eginda.

1.498ko Dagonil onetan ura eta bear ebenagaz ondo ornituta Kolonek, ur-gezako inguru areitan, Irukoitz-Deunaren ugartea ta Benezuelako itsas-bazterreko erditik Pariako itsaskolkora urtenda, bertokoak Paria esaten eutsezanai, eta Kolonek Graziaren izena ipini eutso lurretara joan ziran.

Eta emen konturatu zan Kolon, itsaso artan arek ur-geza zabalak egoteko, erreka aundien urak izan bear zirela, eta lojikaz lur zabal ta aundien urak izan bear zirela.

1.498an Dagonillaren 11n Kolonek, inguru aietatik ainbat ibili ta gero espinolarantza bideratu zan, bere anai Bartolomegaz egoteko.

Pariako ur-kolkotik urtenda eta Benezuelako itsas-bazterretik joanda, Esparta-Barriaren Karibe itsas-bazter aldeko Ekialdean, kotxe-ugarte, Kubagua ugartea, ta an egon ziran ugarteari Fernandina, Juana, Isabela eta beste izen batzuk ipini ondoren, bere ama "Margalida"ren izena ipini eutson 920 Km. karratuak eukazan ugarte bateri.

Gauza bi dira Margalida Kolonen ama izan zalako, ugarte orreri Margaritaren izena ipini eutsoela, Iribarnetar Manuelek "El Principe de Viana (un destino frustrado) 233ko orri-aldian" esaten dauelako zelan IVn Karlos Mallorkan egon zanean Margaritagaz egon zala maite minduta eta aurdun geratu zala.

Bigarren gauza, de La Kosa´tar Juanek 1.500´eko urtean Santa Mariako kaian marreztu eban itsas-askutitzan, zeaztu ebazan Mallorkinezko izen artean, Margalidaren izena agertzen dalako, Madrillen itsasoko erakus tokian dagoena.

Eta Pariako itsas-kolku onetan, Orinoko errekak itsasoaren barrurantza 40 leko baiño geiagotan, urgezakin itsasoko urak gezatu egiten dabela oartuta, Kolonek erreka orren barrurantza esaten eutsen errege katolikoari egoala "parabisu edo atsegintasunezko baratza", eurei idatzi eutsen ondo eskutitz luze onetan.

1.498ko Dagonillaren 23an errege katolikuaren alaba Isabel, Portugaleko erregiña il zan, bere seme Migel euki ta ordu batera.

1.498an Dagonillaren 31n Kolonek, oraindiño ezagutzen ez eban Santo Domingoko kaian legorreratu zan.

Baiña kaian sartu orduko bere anai Bartolomek, txalupa bategaz bidera urtenda adierazi eutson, zelan Santo Domingoko uria eraikitzea agindu ebenean, bera Xaraguako ugartera joan bear izan ebala, berton Beetxio erregea eta bere arreba Kaonaboren alarguna aurkitzen ziralako, eta itanduten joan zalako eurei ipini eutsoezan urre-gorria eta algodoizko zergaren ordaintzagaitik, zelan ordaintzen ebezan algodoiena bakarrik, eurak, urre-gorririk ez zalako egon erantzunda.

-Eta bere aldegite bitarte orreitan sortu zirala mantxintasun ugari, eta bai zelango egoeran aurkitzen ziran une orreitan, Santo Domingo ugarteko uria ta beste ugarteetan eraiki ebazan uriak, bai zenbat urre-gorri ta algodi batzen ebazan zerga lez ugarte guztietatik esan eutson Kolontar Kristobaleri.

-Dana dala, Kolontar Kristobal Dominika edo espainolaren ugartetik kanpo egon zan bitartean, gauza asko sortu ziran eta geienak txarrak, ango nagusiak ia beti matxinatuta egon ziralako Kolontarren aurka, bitartean zukarrak, andramiñezko gaisotasunak, gosea, bertoko jendearen erasoakaz, Kolonen anaia Bartolomek bere agintaritzan lar gogorra izan zalako aitzakiakaz eta abar. Kolonek oso naastuta aurkitu ebazan an bizi ziranaren ardurazko jarduketak.

1.498ko Iraillaren 22an, Aragoiko gorteak artu eben Fernando ta I Isabel katolikuaren alaba, Isabel Portugaleko erregiña zanaren semea Migel erregetzaren ondorengo lez, eta 1.499ko Urtarrillan Gaztelako gorteak.

1.498an Urrillaren 25ean eskutitz bat idatzi eutson Kolonek asarre matxinatu zale zan Roldantar Franzizkori, Bartolome bere anaiaren aurka egin ebazan ezbearreko gauzak egin ebazalako, eta barkamena be eukala, berak errege ta beren agindutara ostera agertzen bazan, izkillatutako erabagi gogor bat artu barik.

Roldatar Franzizko onek, bere matxinatuekin berba egin ondoren, onek ez eben gura ango morroiekaz eroaten eben jauntxo bizitza ezergaitik itzi, eta Kolonek beste amarrukerizko gauza batzuk antolatzen asi zan.

Gauza guzti onen ondorioz eztabaida asko sortu ziralako, bere izeko-osaba errege-katolikoari idaztea erabagi eban Kolonek, Dominika edo espainolako ugartean sortzen zan guztiakaz, eta bide batez aolkulari bat bialdu egiela jaurkintza arloetan berari laguntzeko, eta euren ustez gitxi bazan berak eskatzen ebana, bere seme Diego be bialdu egiela, eurei bertotik serbitzeko.

Eta 1.498ko Urrillaren illa erdian peninsulara bialdu ebazan erregentzako bost ontziak ango mozkin eta barri askogaz Sebillara elduta, Ojedatar Alonso sortu zan berton egotea, eta au arduratuta indiasetik agertu ziran barriakaz, Fonsekatar Juan gotzaiña, Kolonen etsai aundiena izan zanarengana joan zan, bere buruz lur aietara joateko baimenaren eske.

Fonsekak, baimena emon eutson Ojedari bidai ori bete egian bere buruz, baiña baldintza onegaz, errege katolikoaren ordezkoak euki ebazan legeak "lotsean artuta".

Eta talde barri au osotzen eben Ojedatar Alonso, de la Kosatar Juan eta Bespuziotar Ameriko, bereala asi ziran Santa Mariako kaian antolatzen bear eben ontzidia Indiaserantza joateko.

1.499an Loraillren 18an Ojedatar Alonso, de la Kosatar Juan ta Bespuziotar Amerikoren lau itxasontziak Kadizeko kaitik urtenda, Kanariaseko ugartetara urten eben, eta Gomeratik, Kolonek irugarren bidaian egin eben bidai bardiña egin eben auek be. Baleiteke Kolonek beste itsas-alditan margoztutako itsas-mapa bat eroaten ebelako izatea.

Ojedatar Alonsok, Orinokoren ekialdetik 200 lekora eldu zan lekutik asi zan ikertzen Ameriketako lur bazter edo izparterrak, eta gaur frantzezen Guayana deritsonetik talde bitan banandu zan ontzidia, Ojeda ta de la Kosatar Juanek, Kolo-

nek agertu ebazan lurretara joanda, eta Bespuziotar Ameriko egoalderantza, Kattigara´ko lur-muturra ia aurkitzen eban, Ptolomeok 9º egoaldeko zabaltasunerantza egon zala esaten ebalako.

Ojeda ta de la Kosatar Juanek, Trinidad ugartetik aldatuta, Pariako itsas-kolkoa aldatu ziran Eren-Sugearen Agora(1) elduteko, eta ortik Margaritaren ugartetik bitxi edo txirlarien itsas bazterrak ikusi ondoren, lau itxasontziak alkartuta, Kurazao eta Kokibako itsas-kolkora joan ziran, Bespuziotar Amerikok Benezuelako kolkoa deitu eutsonai, eta Ojedatar Alonso ta de la Kosatar Juanek kolkoaren barnean Marakaiboko aintzira(2) aurkituta San Bartolome izena ipini eutsoen.

1.499ko Dagonillaren 30ean Ojedatar Alonso eta de la Kosatar Juanek, gauza guzti oneik aurkituta, eta naita Fonseka gotzaiñak, ipini eutson baldintza bakarrean debekatuta euki, espainola ugarterantza joan zan, bere atzetik Bespuziotar Ameriko Amazonas ibaia aurkitu ondoren euren billa joanda.

Arrituta geratu zan Kolon, jakin ebanean Ojedatar Alonso, de la Kosa tar Juan eta Bespuziotar Ameriko, Jakynoren itsas-bazterreko kaian lurreratu zirala, eta bidai ori egiteko zer gertatu zan jakin gurean egonda, bai ta zertan juan ziran berari ezer esan-bage jakiteko, Roldantar Franzizko bialdu eban eurakaz egoteko.

1.499an Iraillaren 29an eldu zan Roldantar Franzizko guda-talde gogor bategaz, espainola ugarteko mendebalean Yakinoren kaian Ojeda ta besteak kokatuta egon ziran lekura.

Ojedatar Alonsok, guzur aundia esan eutson Roldaneri, bera Kolon ikusteko itxaropenean egoala esan eutsonean, gogo ori urriñetik be ez ebalako euki, eta Roldanetik aske geratu zanean, Xaraguako ugartera joan zan, angoko espainar jendea Kolonen aurka matxinatzeko asmoan.

Batzuk alde eta beste batzuk aurka egon ziralako, borrokan asi ziran euren artean, Roldan bera joan bear izanda matxinatu aiek bakezteko.

Eta Ojedatar Alonso jakinda, Roldantar Franzizko zelakoa zan bere aurka joan ezketiño, peninsulara itzultzea erabagi eban eta 1.500ean Bagillako illerdian eldu zan Kadizeko kaira, itxa-

(1)Eren-sugearen Agora = boca del dragon. (2) Idoi edo Aintzira = pantano, lago pequeño.

sontzia jopu biurtu[1] ebazan ugarteetako indiar jendeagaz beterik.

Ojedatar Alonso andik alde egin ebanean, espainolako kolonitarrak Koloneri eskatuta, bertoko jendea euren serbitzura eukitea lortuta guzientzakotu egin zalako, banatzailletasuna edo "magalpea[2]" deitu jakon, bertoko jendearen menperatze orreri.

Baiña Kolon ez zalako ergela eta gitxiako oilo edo koldar bat, Fonsekatar Juan gotzaiñak Ojedari emon eutson askatasuneko baimenagaz asi zan gogora ekarten, gertakizun onek zer esan gura eben ausnartzeko, eta bereala konturatu zan bere lilluramena[3] berantza joan zala, Fonseka eta Ojeda jendelakoak indar ta bestearenagaitik bekaizkeri asko euki ebelako, bere ospea ain goialdeko maillan eten barik iraun egian.

Kolon bere oldozmenean ez eban arrazoizko zalantzarik euki, Indiasetara joan etorriko talde bakoitzaren mariñelak, bitartekotasunik edo alkar-adituak euki edo euki ez arren, ango agintarien aurka negartsu edo marmarika agertzen ziralako geienak, ta gauza orreik bertoko jendearen bekaizkeriko irudimenakin maltzurtasunezko almenagaz zabalduta, Fernando katolikuak ez eban euki beste biderik, Bobadillatar Franzizko gomendatorea[4] indiasetara bialdu baiño, an zer gertatzen ziranak ikerketa bidez jakiteko.

(1) Yopu biurtu = esclavizar, convertir en esclavos a las gentes de aquellas tierras. (2) Banatzailletasuna edo magalpea = repartimiento, encomienda o protecciòn. (3) Lilluramena edo larderia = prestigio, fascinaciòn, o autoridad. (4) Gomendatorea = comendador.

I Isabel eta Fernando errege katolikuak ez ziran konturatzen ara bialdu eben Bobadillatar Frazizko ori, ez zala eurak gogoratzen ziran bezela aiñ argi ta jakintsua, bekaizt, kasketatsu ta altsutasunezko itxurak emonda, borondatezko neurrian maskar edo aul ta ergel bat baiño besterik ez zalako izan.

Atutxa´tar Paul

Zornotza´n 2.015´eko urtean Epailla´ren 21´ean

Euskaldun barrientzat

ikasten

Zazpi utsak





Sudoku

5	9						2	8
		1	7		2	3		
7								4
		5	4		3	8		
3								6
		7	1		9	5		
8								9
		3	9		8	4		
2	9						8	3

5	9	6	3	1	4	7	2	8
4	8	1	7	9	2	3	6	5
7	3	2	8	5	6	9	1	4
9	2	5	4	6	3	8	7	1
3	1	8	2	7	5	6	4	9
6	4	7	1	8	9	5	3	2
8	7	4	9	3	1	2	5	6
1	5	3	6	2	8	4	9	7
2	6	9	5	4	7	1	8	3

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

.....tar .....

..... kalean (auzoan.....zenbakian

.....errian, ...errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko (ogeitamabost euro) kontu onetan:

Euskerazaleak, Bilbao bizkaia kutxa : ES28 2095 0000 74 2000089615 zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

EUSKERAZALEAK. Colon de Larreategi, 14-2. Tel. 94 423 53 22. Bilbao - 48001
info.euskerazaleak@gmail.com.

EUSKALERRI NEREA

Euskalerri nerea ezin zaitut maite
baina nun biziko naiz zugandik aparte.
Anaien aurpegian begirada otza,
biotz berotasuna izaten da motza.

Arratsaldeak beti dakarren tristura,
neretzat izaten da bakardade ura.
Argitu nairik begiak,
balio al du gure egiak?
Bide bat aukeratzean,
gelditu nai nuke nere lurrean.

Euskalerri nerea
ezin zaitut maite
baina nun biziko naiz
zugandik aparte.

Orduña